

SEIGARREN ATALA: BIGARREN ALDAKETA HANDIA: 60ko HAMARKADAKO LEIOATIK GAURKORAINOKOA

EKONOMIA

60ko hamarkadan, isolamendu aldia amaituta -oraindino gobernuaren interbentzionismoa bere horretan zegoen, baina- eta 1959ko Ekonomia Egonkortzeko Planari esker atzerriko inbertsioak helduta, industriak indarberritu, eta bultzada handia hartu zuen, nekazaritza-guneetatik etorritako etorkinen esku-lan merkeei, atzerriko kapitalek sektore bizkorretan (hala nola, kimika-sektorean) eginiko inbertsioetan, inportatutako teknologiari, bankaren bizkortasunari, esportazioen gorakadari eta barruko aurrezki-soberakinei esker. Itsasontzigintzan ziharduten enpresak ere sortu ziren, hala nola, Auxiliar Naval (1962an sortua) -galdaragintza lanak egiten zituen, eta itsasontzietako elektrizitate-instalazioetarako material hermetikoak fabrikatzen zituen-, FRIAASA (Hozkailuak eta Elikadura arloko osagarriak) 1964an, edo Derivados del Flúor 1967an.

Eragile horiek guztiak direla-eta, hazkunde demografikoa egon zen, gobernuaren laguntzek eta etorkin gazteen etorrerak bultzaturik; alabaina, kapitalak metatu arren, beharginen soldadak ez atzera ez aurrera zeuden, eta oinarrizko produktuen prezioak gorantz ari zen. Hala, grebak ugaltu egin ziren, eta behargin askok Europako beste herrialde batzuetara jo zuten.

70ko hamarkadan, nekazaritza atzeraka ari zen, nabarmenki, industriek hartutako lurzoruak¹⁶¹ eta nekazaritza lurak zerbitzu gune bihurtzeak hartaraturik. Bigarren sektorean (60 metal enpresa, 17 kimika arlokoak, 10 beiragintza eta eraikuntza enpresak) beharginen %60k egiten zuen lan. Hirugarren sektorea, emeki-emeki, sendotzen ari zen, udalerrria hazten zen ginoan. Baina, 1973 aldera, 60ko hamarkadan hasitako mirari ekonomikoen sasoa amaitu zen, eta siderurgia eta itsasontzigintzaren krisia piztu zen, eskariak behera eginda, horiek sorturiko mendekotasuna hartaraturik, eta inbertsioa kikiltzen zuen egonkortasun politiko ezak eraginda. Horrek guzti horrek "burdinaren kultura"-ren amaiera ekarri zuen, eta langabeziari gora eragin zion. Hurrek, berez, lan-gatazkak areagotu zituen, eta atzerakada demografikoa ekarri (jaiotze-tasa eta hazkunde demografikoa epeldu ziren, migrazio saldoak aurkakoak izan ziren, eta biztanleria zahartzen hasi zen).

80ko hamarkadan, krisi ostean industria birmoldatzen hasi zen, Espainia EKEEn ustezko sartu beharrak bultzaturik, eta eragin handia izan zuen Lamiakoko hainbat enpresatan¹⁶²; ordura arte udalerrriaren erdigune izandakoa bere nagusitasuna galtzen hasi zen -langabeziak, aurrejubilazioek eta kalte-ordainek astinduta-, Avanzadako alde bietan azkar hazten ari ziren bizitokien mesedean. Alde hori bizitoki bihurtzen hasi zen, gero eta leku handiagoa hartzen ari zen bizitzeko leku, eta hara jotzen zuten itsasadarraren beste alderdiko jendetzarik gura ez zutenek.

90ko hamarkada krisi eta bizkortze garaia izan zen: Euskalduna ontziola itxi zen; altzairutegi trinkoa sortu zen; Labe Garaien azken labea, "Mari Ingeles" izenekoa, 1996ko uztailan amatatu zuten. Aldi berean, finantza arloa geraldian zegoen, eta teknologia, lehiakortasuna eta langabezia murrizteko prestakuntza sustatu egin ziren.

Gaur egun, Leioak 27 industria-gune handi ditu¹⁶³, gehienak Udondon eta Lamiakon kokatuak, eta horietan 2.000 behargin baino gehiagok egiten du lan. Hiru kimika-lantegi gailentzen dira, lanpostuen erdia baino gehiago hartzen dute-eta, metal sektoreko 18 lantoki txiki, eta 6 manufaktura-enpresa. Guztira, ia 300 enpresa dago udalerrian: %15ek metal eta beira sektoreetan dihardu; %10 baino gehiago egur eta metal aroztegiak dira; %7 eraikuntza-enpresak dira; %4 elikadura arlokoak, eta %2,8 kimika eta botika sektorekoak.

Industrializazioak bizi-mailaren hobekuntza eta kontsumoaren gorakada ekarri zituen. Oinarrizko produktuek familiako diru-sarreraren gero eta zati apurragoa hartzen zuten, eta osterantzeko gastuetarako diru gehiago zegoen (telebistak, garbigailuak, hozkailuak, telefonoak eta, batik bat, autoak). Aldi berean, azken urteotan kultura nazioartekotzen edo, hobeto esateko, amerikartzen ari da, eta Leioan betiko ekanduekin batera nahasten da.

Oraintsu arte Leioa herri nekazaria izan bada ere¹⁶⁴, gaur egun industria-udalerrria da, baina azken urteotan bizitokiak nagusitzen ari dira, eta hirugarren sektorea eta zerbitzuak ikaragarri garatu dira. Bilbo hur dagoenez gero, hiriburuko etxebizitza eta ekipamendu metaketa arintzen du. Udalerrian, Euskal Herriko Unibertsitateko instalazio nagusiak daude, bai eta erlijio-ikastetxe pribatu franko (hala nola, Askartza Claret, Irlandarrak, Ingeles Ikastetxea¹⁶⁵, Gaztelueta, Mesedeetako lekaimeak), Gizakundeko domingotar lekaikeen komentua, kultur etxeak eta ume nahiz gazteei arreta egiteko hainbat gizarte-gune ere. Denda eta banketxe ugari egoteaz gain, Avanzadako errepide ondoan erostetxe handiak eta bulego-eraikuntzak daude.

POLITIKA ETA GIZARTEA

Hamarkada horretan, lehenengo oposizio-kimua sortu ziren errime, behargin-mugimendua, hainbat elizjende eta euskal abertzaleak buru zituela. Abertzaleak izan ziren nagusi. Sasoi hartan ETA sortu zen, hasieran kultur elkarte gisa, eta gero borroka armatuaren bideari ekin zion. Garai batean, sindikatuak kolokan egon ziren, ezen, politikara lar lerratuak zeudenez, alderdi politikoen morroi bihurtuak ziren, baina 1958ko Hitzarmen Kolektiboen Legea ezartzeaz batera indarberritu ziren. Horiek guztioriek direla-eta, Francoren erregimenaren lehen endekatze-aieruak agertzen hasi ziren, Burgosko auziak agerian utzi legez.

Francoren denboran elizak izan zuen bilakaera eta gizartean izan zuen zeregina harrigarri bezain ustekabeak izan ziren. Jakina, hasieran estatuaren boterea alde izan zuen, erlijio-monopolioa lortzeko eta berez ez zegoen batasunik indarka ezartzeko, baina, 60ko hamarkadan, sistema demokratikoago baten bila hasi zen, katolizismoa bere merezimenduengatik bizi ahal izan zedin. Hala, bada, Leioako eliza jaun eta nagusi izan zen. Euskarazko irakaskuntza elizjendearena nahiz laikoa bultzatu zituen: lehenengo ikastola parrokiaren beheko solairuan sortu zen (gero San Jose auzuneko beheko solairu batera aldatu zen, eta Alzaga ikastolaren sorburua izan zen), eta Zabalatarrek lagatako lursail batean, parrokoak hala eskatuta, Mesedetarren ikastetxea sortu zuten.

Elizaren gerizpean ere hainbat kultur elkarte eratu zen, hala nola, San Joan Bataiatzailea abesbatza. Gainera, parrokiak hainbat gazte elkarte ere sustatu zituen, eta horietatik erregimenaren aurkako hainbat talde politiko eratu zen: Itxas Alde kultur elkarte sortu zen, elizaren abaroen, eta ikaragarritzko lana egin zuen, abstentzioa hainbat handiena izan zedin "monarkiari bai ala ez" erreferendumean. Aldi berean, Acción Católicaak Lamiakon ziharduen, eta San Joan parrokian Cáritas sortu zen; elkarte horrek gizarte-lan handia egin zuen, bertako kideen artean egon zitezkeen desberdintasun politikoak betiere alboratuta.

Francoren erregimenaren aurkako oposizioak ekinean jarraitzen zuen: Maiatzaren 1eko eta Aberri Egunaren bezperan, errepideak gorri, zuri eta berdez margotzen zituzten, eta emakumeek jositako ikurrinak agerian paratzen zituzten; orobat, mendi-ibilaldi gidatuak antolatzen zituen, eta propaganda banatzen zuten, betiere erraz ezagutuko ez zituzten herrietan.

Apurka-apurka beste gazte elkarte batzuk sortu ziren parrokian, hala nola, Biltoki eta Eskautak, Txantxarrene eta Lagun Artea kirol elkarteak, eta Gure Ohiturak eta Txikiak (lehenago sortua) dantza taldeak. Eta horiek leioaztarren aisialdia bideratzen zuten, eta herriko folklorea bultzatu.

70eko hamarkadaren erdialdean, nabaria zen haustura estatuaren bidez erreforma egitearen aldekoen (parlamentuko alderdiak eta Euskadiko Ezkerra -ETA pm-ren adar politikoa-, eta parlamentuan ordezkariak ez zeukaten EPK eta Democracia Cristiana Vasca alderdiak), eta erregimenetik erabat bereiztu gura zutenen artean (azken jarrera horren aldekoak ETA-m, KAS, HASI, LAIA eta LAB ziren). 1975ean diktadorea zendu zenean, Leioako EAJren azpiegitura osterara ere hasi zen jardunean. Udondoko lehengo batzokia erosi zuten, bulego gisa erabiltzeko, eta, bestetik, Matone taberna laga zieten, eta benetako Batzokia han antolatu zuten.

Azken baten, bide urratu zen, 1977az geroztik Estatuan demokrazia ezartzeaz batera, herritarrek aukera berriak izan zituzten arlo politikoan eta norberaren nahiz herriaren asmoak bete ahal izan zituzten. Hala, herriak hautaturiko udalak berriro antolatu ziren, eta estatuko hauteskundeetan bozkatzeko aukera eman. Eta, jakina, Euskadi erkidego gisa onartu zen, euskal autonomiaren bidez, eta Bizkaiak eta bertako herritarrek 40 urtean debekaturiko antolaera-esparrua berreskuratu zuten.

DEMOGRAFIAREN BILAKAERA

1960ko eta 1970eko hamarkadetan, emigrazio ezdeus geratu zen, "mirari ekonomikoak" erakarritako estatuko herritarren etorreraren aldean. Datu ofizialen arabera -horiek mugikortasun maila, jakina, apaltzen dute, baina-, 5,7 milioi espainiar inguru aldatu zen probintzia batetik bestera 1962tik 1967ra. Hirira landako milioika biztanle ekarri zituen mugimendu horrek; hortaz, langile-nekazarien kopurua gutxitu egin zen, eta hiriguneak guztiz azkar hazi ziren. Euskal Herrian, gazteek baserrietatik alde egin zuten, hirietan soldatapeko lanak bilatzeko. Jaiotze-tasari dagokionez, hura motelduz joan zen, jaiotzak kontrolatzeko bitartekoak hedatu zirelako eta ezkontzeko adinak gora egin zuelako, besteak beste.

Leioako alderdi asko, ordura arte biztanle gutxi edukitakoak, oso nabarmen handitu ziren, San Bartolome kasurako. 1960an, udalerriko hirugarren eliza izango zenaren hirugarren harria paratu zuten, Oblatuena.

Urte horietan, demografiak inoizko eraginik handiena izan zuen: inmigrazioak eta horrek ekarritako hazkunde demografikoak goitik behera itxuraldatu zuten Leioa, emeki-emeki gaurko itxura hartzerainokoa.

1981etik 1991ra, jaiotza eta heriotza tasak pittin bat jaitsi zirenez gero, Leioako biztanleriak gora bidean jarraitu zuen, motel-motel. 90ko hamarkadaren azken urteetan, ostera, jarrera hori bizkortu egin da. Ezkerraldeko industria-herrien gainbeherak eta metaketak eta barruko migrazio-mugimenduek eragin dute, neurri handi batean, hazkunde demografiko hori, Getxo eta Berangon jazo legez. Hala, 1991eko erroldaren arabera Leioak 25.490 biztanle zituen, ofizialki, eta 1998an, ostera, 27.456.

Egun, udalerriak 3.050 bizt./km²-ko dentsitatea dauka, eta eten barik ari da hazten. Gaur egun, honakoak dira dentsitaterik handiena daukaten aldeak: Iparragirre etorbidea, Kandelazubieta, Ikea, Langileria, Sabino Arana etorbidea, Sarriena, Santa Ana etorbidea, Iturribide, Artatzagane eta Txorierri.

Leioako biztanleria gazte da (ia populazioaren heren batek ez du 19 urte baino gehiago), eta berezko hazkundea aldeko du (%1,7koa). Biztanleria aktiboaren erdiak zerbitzu sektorean dihardu lanean (%46,9k), %30,5ek industrian, %5,7k eraikuntzan, eta %0,2k nekazaritzan.

HABITATA ETA HIRIGINTZA

1960an, Basurtuko Ospitale Santu eta Zibilaren Karitate Batzak ospitale berria eraiki beharraz oldoztu zuen. Leioa kokalekutzat hautatu eta gero, 1974ko ekainaren 19an 15 solairuko eraikuntza horren lehenengo harria ipini zuten, baina ez zen egundo amaituko, arazoak ekonomikoak zirela-eta.

Beira fabrikako beharginen etxeak eraitsi zituzten 60ko hamarkadaren amaiera aldera, eta lurzoru hori industria-eginkizunetarako baliatu zen. 70ko hamarkadatik egundaino, lehendik zetorren kalitateko bizilekuak eraikitzeko joera zabaldu egin zen, udalerriko hainbat aldetan familia bakarrarentzako etxe itsatsi lorategidunak eraiki zituzten. Eta horien hurrean, "70ko hamarkadako ohiko espekulazio-sustapen zatarrak eta itxuraz zentzuzkoago izan zen 80ko hamarkadako eraikuntza handigurakoak"¹⁶⁶. Lorategidun etxebizitzaren ale bat Sarrienako Mardoena-Aurre etxe-multzoa dugu. Etxe-multzo hori kooperatiban egin zuten, profesional eta klase ertaineko herritarrentzat. Eraikuntza-lanetan, etxe bakoitzarekiko banakako arreta eta ingurunean txertatzeko modua gailendu ziren¹⁶⁷.

Prozesu guzti horrek habita mistoa sorrarazi du, ezen, biztanleria hainbat gunetan biltzen da, elkarrengandik nahiko bereizirik dauden urbanizazioetan. Urbanizazio horiek batera baserri sakabanatuak daude, osotasun nahiko barreiatu batean. Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak "errepide ondoko" hiri hori arteztu nahi du, hutsik dauden eremuak urbanizatuz, gunek horiek elkartzeko. Orobat, lehen mailako berdegune eta hiri-ekipamenduz hornitu gura du udalerria. Udalerrian, oraindino badago solairu biko etxe tradizionalik, baina horien lekuan, apurka-apurka, lorategidun eta antolamendu irekiko urbanizazio modernoak eraikitzen ari dira. Urbanizazio berriak, batik bat, Avanzada ondoan daude, errepide horretatik Getxoko birbilduraino eta errepidearen eskuinaldetik unibertsitaterantz.

Udalerraren administrazio-gunea eta hirigunea bera Avanzada errepidearen albo banatara dago, Udondo, Sakoneta, Iturribide, Ikea, San Joan eta Elexalde auzuneetan. Elexalde auzunean eliza, hilerria eta udaletxea daude, eta apurka-apurka urbanizatzen ari da, Sakoneta eta Mendibile legez. Orobat, aipatzekoa da Leioako gizarte-etxearen ondoan eraiki berri diren etxebizitzaren kalitatea.

Aldirian, denetariko urbanizazioak aurki daitezke: Getxo ondoan Pinueta, San Bartolome eta Negurigane, Gaztelueta eta Ondiz auzuneak daude, eta bertan kalitateko bizitokiak eta etxe tradizionalak edo baserriak nahasian daude. Horiez gain, nabarmentzekoak dira Gobela ibai ondoan, Artatzako parke berriaren ondoan eta eskualde planak, halako baten, urbanizatzeko lurzoru izendatu zituen hareatzetan, dauden eraikuntzak. Alde hori, egun, itxura bikaineko osotasuna da. Udalerrriaren goialdean eta unibertsitaterako bidean, Artatzagane, Peruri eta Sarriena urbanizazioak daude; bertan, txalet itsatsiak eta hainbat solairutako urbanizazioak -kirol ekipamendu bikainekoak- ugari dira. Itsasadar ondoko aldean (Lamiako, Aketxe, Txopoeta eta Lamiakoko begiratokia), industria gainbeheran dago, eta eraikuntzen kalitate apurra (sasoi baten, 60ko eta 70ko hamarkadetan, hurreko fabriketara behar egiten zetozen etorkinek hura zuten bizileku) eta ekipamendu eza nagusi dira; horatz, Berritzeko eta Barrualdeak Birgaitzeko Plana (PERRI) alde hori jorratzen ari da. Beste alde batzuetan, hala nola, Teilerian, San Bartolomen, Pinosolon eta Santsoenan, eraikuntza tradizionalak eta baserriak nahasten dira etxe eraiki berriekin.

KOMUNIKABIDEAK

Eskualdeko komunikabide garrantzitsuenak, Avanzada autobiak, zeharkatzen du Leioa erdi-erditik. Baina herria lurpetik igarotzen du, biztanleengan, bestela, izango lukeen eragina hutsaltzeko. Autobiak Leioa eta Getxo elkartzen ditu Txoriherri eta aireportuarekin, Plentzia-Mungia eskualdearekin Uribe-Kostako autobidearekin, eta Bilbo eta Ezkerraldearekin Arrontegiko zubiaren bitartez. Itsasadarraren ondotik, Bilbotik Areetarako BI-6311 errepidea doa, Bilboko portuaren lehengo zirga-bidea zihoan bidetik, Lamiako eta Astrabuduako industria-gune eta behargin-bizitokietatik zehar. Badaude bestelako bide batzuk, hala nola, unibertsitaterako errepidea, Leioatik Unberainoko foru-errepidea eta -udalerriko bizilekuak sakabanatuta daudela kontuan izanda- gune guztiak lotzen dituzten hamaikatxo herri-bideak.

Bilbotik Areetarako errepidearen paraleloan Bilboko metroa dabil, Eskuinaldeko burdinbide zaharren bidetik doa. Udalerrian geltoki bi (Lamiako eta Leioa) dauden arren, metroak ez da gisako zerbitzurik eskaintzen Leioako biztanleei, ezen, behin eta berriro eskatu arren, oraindino ez da heldu ez Avanzadaraino, ez unibertsitateraino. Alabaina, metroak Lamiakon duen ibilbidea, zati batean, lurpean egiten duenez, errepide-trafikoa hobetu da. Etorkizunean, agian, Udondon oinezkoentzako kaleak atonduko dira, eta metro-geltokia Boulevardi lotuko liokeen tranbia eraikiko da.